

TOKIKOM

# karkara

**Orioko eta Aiako aldizkaria**  
2013eko abenduaren 20a  
346. zenbakia. 25. urtea



MAIALEN SARASUA

## Doinu barrokoen uberan

Olatuen forma irudikatu nahi izan dute Orioko elizako organo berriaren egiturarekin. Instrumentuaren ateak irekita daude bisitatu nahi dutenentzat.

**05**

**Orioko kontuak**  
Gureak Zarautza

**09**

**Kirol Elkarrizketa**  
Haritz Lizarralde

**10**

**Aiako berri**  
Azoka martxan

**25**

**Herritarra**  
Miguel Romero

**Egin ezazu zuk zeuk**

# BOXEN ALOKAIRUA

**OFERTA ESKAINTZA!**

Zergatik ordaindu hainbeste urteroko kobxearen, motoaren, furgonetaren edo kamionetaren azterketa edo olio aldatzea


**Hiru erataria egin dezakezu:**  
Zuk eginda, zuk gurekin ikasiz eginda edo guk eginda.  
Deitu eta eskatu prezioak konpromisorik gabe  
943 36 08 50 edo [boxes@euromikels.com](mailto:boxes@euromikels.com)

**943 360850**



## EUROMIKEL'S

N-1 errepidea. 441 km. 34 industrialdea • **Villabona** • Tel.: 943 360 850 • Faxa: 943 365 401  
[boxes@euromikels.com](mailto:boxes@euromikels.com) • [www.boxeseuromikels.com](http://www.boxeseuromikels.com)





## Mandela: *Egin arte denak dirudi ezinezkoa*

1

Bere ikurra, bere bihotza galdu du Afrika beltzak. Galera latza munduarentzat, besteentzat eta guretzat. Esaldi batek deusezten ditu esperantzarik ezak, kunplitzeko edo saiatzekoak baitira beti ametsak. Urruti beti dago urruti abitzen ez denarentzat.

2

Ze izango zen Sudafrica hori Apartheida, banaketa; aberatsenen ta pobreenen nahigabeko zatiketa. Ta jatorrizko herritar beltzak beren ametsak gordeta, Mandela buru zutela eman zioten denari buelta. Ezinezkoa dirudiena ere lor liteke eta.

3

Sudafrica hurrun egon liteke, baina halere eredu. Euskal Herriko egoerantzat akaso har dezakegu. Urte luzetan kateatuta ta zaurituta gaude gu, amesten dugun udaberria beti egiten da negu. Egun baten guk esaldi hori esan ahalko ote degu?

346

### karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

**Kultur etxea**  
Eusko Gudari, 26  
20810 Orio  
943 83 15 27  
karkara@karkara.com

#### Editorea

Karkara taldea  
kultur elkarte

#### Zuzendaria

Lore Berasaluze

#### Erredakzio taldea

Irati Agirreazaldegi,  
Onintza Aiestaran, Iker  
Gurrutxaga, Eli Lasa eta  
Idurre Lizarralde

#### Publizitatea

Iban egiguren

#### Publizitatearen diseinua

Iban egiguren

#### Testuen zuzenketa

Elizabete Manterola eta  
Rikardo Uzkudun

#### Ale honetako

#### laguntzaileak

Egoitz Dorronsoro,  
Esperientzi Eskola,  
Ana G. de Txabarri,  
Mikel Lizarralde,  
Goiuri Unanue  
eta Nikolas Zendoia

#### Laguntzaileak

Zigor Esoain  
eta Iñaki Iturain

#### Diseinua

Karkara taldea

#### Banatzaileak

Narrea Etxeberria  
eta Esti Uranga (Orio)  
Eli Irureta (Aia)

#### Inprimategia

Gertu Koop. E. (Oñati)  
Lege gordailua SS-346/90  
ISSN 1132-1105  
Tirada 3.200 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esaneren edota iritzien erantzukizunik. KARKARAN argitaratutakoa berreman daiteke, osorik edo zatika, baldin eta iturria aipatzen bada.



Nelson Mandelak esandako esaldi bati sanikolasetako bertso saioan Maialen Lujanbiok botatako bertsoak. KARKARA

#### PUBLIZITATE PREZIOAK

##### Iragarkia alero jarrita

|                |          |
|----------------|----------|
| Modulu bat     | 12,00 €  |
| Bi modulu      | 24,00 €  |
| Hiru modulu    | 36,00 €  |
| Lau modulu     | 48,00 €  |
| Sei modulu     | 72,00 €  |
| Zortzi modulu  | 96,00 €  |
| Orrialde erdia | 120,00 € |
| Orrialde osoa  | 204,00 € |

##### Iragarkia behin jarrita

|                |          |
|----------------|----------|
| Modulu bat     | 16,00 €  |
| Bi modulu      | 31,00 €  |
| Hiru modulu    | 47,00 €  |
| Lau modulu     | 64,00 €  |
| Sei modulu     | 95,00 €  |
| Zortzi modulu  | 127,00 € |
| Orrialde erdia | 174,00 € |
| Orrialde osoa  | 306,00 € |

#### Publizitatea kontratatzeko:

Iban Egiguren -688 859 682-

edo karkara@karkara.com

Prezio hauei BEZa gehituko zaie

#### LAGUNTZAILEAK



#### EUSKO JAURLARITZA

Kultura Sailak  
diruz lagundutako  
hedabidea

## Villarriba eta Villabajo

Duela urte dezente telebistako iragarki batek garbiketarako produktu bat salatzeko, herriko biztanleak zatitzen zituen lehian jarritz: *Villarriba* eta *Villabajo*. Orion ere toponimo hauek baditugu, *Goiko Kale* eta *Beheko Kale* izena hartzen dutenak hurrenez hurren.

Bada, orain dela hilabete batzuk Udalak aho batez onartu zuen asteburuetan herriko plaza oinezkoentzat soilik uztea. Neurri berri honek ibilgailuei Oriotik ateratzeko bidea Txanka-Hondartzakoa izango zela adierazten zien.

Denak hain sinplea zirudien arren, errealitateak beste zer bait erakusten zuen; trafiko guztia Iturbide aldapatik igaro eta trikimailu honekin ibilgailuek biderik laburrena aurkitzea zutela xede.

Goiko Kaleko bizilagunen kexak izan ostean, Udalak hori debekatzeko seinalak jarriko zituela jakinarazi zuen. Udaltzainek jarritako zinta pare bat eta hesi bati lotutako kartela, non *Bidea itxita* mezua irakurtzen zen. Oharra irakurri zitekeen arren, errealitatea bestelakoa zen; bidea ez zegoen itxita eta ibilgailuek seinaleari ez zioten jaramon handiegirik egiten, Pelotari kaleko atzeko partetik sartu eta aldapan gora ekiten ziotelako. Egun, zinta eta kartel horiek ere desagertu eta autoen joan-etorriak bere horretan jarraitzen du. Udalak ziria sartu zigun Goiko Kaleko biztanleoi.

Orioko herriko Udala gaurdaino gobernatzen duen Bilduri esan nahi diogu, ekologia ez dela soilik atez-atekoaren defentsa egitea, baizik eta harago doala. Goiko Kaleko biztanleak ez gara gutxiago, oinezko ere bagara, lehen bezalaxe gure etxeko leihok zabalik mantendu nahi ditugu, kutsadura akustikotik at, trafiko zalapartatsu eta arriskutsutik kanpo. Azken egunetan Iturbiden konpontzen ibili diren galtzadaren kalteak ez dira kasualitate, begi bistakoa baita A-8 autopista pasatzen ari zaigula gure kaleetatik barrena, arazo honen beste adierazleetako bat besterik ez da. Arestian aipatutako iragarki ospetsu horretan bezalaxe *Villarriba* eta *Villabajoren* berezitasunik ez dezala egin, biak osatzen baitugu herria.

Udalak benetako irtenbide bat –zinta eta kartel *sofistikatuak* albo batera utzita– ematen digun bitartean, Beheko Kaleko bizilagunei ere beste honakoa helarazi nahi diegu: guganako begirunea erakutsi eta enpatiaz jokatu dezatela. Oinezko garenean plazatik lasai asko ibiltzea gustatzen zaigun moduan, gidari garenean herritik ateratzeko Txanka-bidea hartuz kilometro bat gehiago egiteko alferkeria ginetik kendu daite-

keela, ez baita ezer kostatzen!

■ **Mustapha Tiar eta Hassan Tiar.**

## Errege Magoen etorrera eta jaiotza, kantu eta jantzi lehiaketa

Kaixo haur eta gazteak. Urtero bezala, Errege Magoei ongi-etorria egiteko, panderoak, danborrak eta barrikak astindu behar dira. Horretarako, abenduaren 20an, ostiralarekin, 19:00etan, Ikastolako pergolan, izenak hartuko dizkiegu sei urtetik gorako neska-mutilei. Ondoren, lehen entsegua, abenduaren 23an, 19:00etan izango da.

18 urtetik gorako herritarrek ere animatu nahi ditugu sokari eutsiz eta suzia eramanez kabalगतan parte hartzera. Nahi duenak izena eman dezake egun, ordu eta toki berean edo entseguetan.

Bestalde, abenduaren 29an, jaiotzen, kantuen eta jantzien lehiaketa egingo dugu Ikastolako pergolan, 17:00etan.

Polita izango litzateke, abenduaren 24 arratsaldean, jaiotzarekin kalez kale ibiltzen diren taldeek ere lehiaketan parte hartzea. ■ **Talai Mendi.**

## Eskerrik asko, Orio

Duela 30 urte hasi ginen Orion lanean. Orain Zarautzera joatea tokatzen zaigu.

Urte guzti hauetan, Orioko herria eta Udala, gure ondoan izan zaituztegu, eguneroko jardunean. Zuen babesa eta laguntza oso hurbil sumatu ditugu. Horregatik, herritar guztioi eta Udalari gure esker ona adierazi nahi dizuegu.

Gureak egin du, Orion, baina ez goaz urrutira, behar duzuenerako Zarautzen aurkituko gaituzue.

Bihotz-bihotzez, eskerrik asko, Orioko Gureak Languneko langile guztion partez. Nahi duzuen arte, ondo izan.

■ **Orioko Gureak.**

## Aian ere LOMCE legeari ez

Aiako Lardizabal Guraso Elkarteak, batzar orokorrean bilduta, *ezezko borobila* adierazi nahi dio LOMCE legeari.

Gure hezkuntza defendatzea, lortu dugun guztia mantendu eta hobetzea da gure helburua. Lege honek ez du hezkuntza sistema hobetzeko balio, iraganera garamatza. Atzerapauso nabarmena da.

Hezkuntza sistema demokratiko baten partaide izan nahi dugu. Lege berriak murriztu egiten du gure seme-alaben heziketari eragiten dioten erabakietan parte hartzeko dugun eskubidea,

kontsultarako organo bihurtzen dituelako Eskola Kontseiluak.

Gure aukera hezkuntza euskaldun eta eleantza da. Lege berriak gure hizkuntza, euskara, eta gure curriculumagutxiesten ditu. Euskal administrazioaren eskumenen esparrua argi eta garbi urratzen ditu, helburu zentralizatzailerekin.

Kalitatezko hezkuntza nahi dugu, ikasle euskaldun pluralak heziko dituen, gizarteko desberdintasunak gainditzien lagunduko duena, integratzailea, aukeren berdintasunean oinarritua, parte-hartzailea, gure gizartetik eta kulturatik eraiki eta antolatua.

Gure hezkuntza, gure hizkuntza, defendatuko ditugu eta horregatik LOMCE legearen aurka antolatzen diren ekintzak babestea adostu dugu. Baita gure herrian, Aian, lege honek ekarriko dituen eraginen gaineko sentsibilizazio ekintzak garatu ere. ■ **Aiako Lardizabal Eskolako gurasoak.**

## Deia IRPH-k kaltetutakoei

Azken urte hauetan hainbat hitz berri ikasi ditugu: preferenteak, Euriborra... Niri loa kendu didan hitza IRPH izan da: *Indices de Referencia de Préstamos Hipotecarios* delakoa; hau da, nire bankuak –orain *Bankoa*, aurrezki kutxa moduan sortu zena– hipoteken interesak kalkulatzeko erabili ohi duen indizea.

Orain jakin dugu IRPH ilegala dela, eta sail horretan gauden bezerooi Euribor + 1 ezarriko digute. Baina nire hipoteka berrikusi arte, IRPH ordaintzen jarraituko dut. Nire kasu berean baldin bazaudete, hemen uzten dizuet IRPH-k kaltetutakoen taldearen helbidea:

[www.irphstop.plazan.net](http://www.irphstop.plazan.net)

Astero elkartzen gara. Bilera asteazkenean egiten dugu, arratsaldeko zazpietan, Donostiako Anoetako CRAJ kultur etxean, Txuri Urdin izotz pista dagoen eraikuntzan. ■ **Karmele Moran.**

## Ez dira gaurko kontuak

Urteetako inposaketaren ondoren, 1977ko urtarrilaren 19an Ikurriña berriro legeztatu eta aiarrek, hau ospatzeko, plazara atera zuten. Era berean udal-etxeko leihotik zintzilikatu zuten. 37 urte geroago Espainiako gobernua, aiarron nahiari kasu egin gabe, espainiar banderari inposatu du, Euskal Herriko beste Udaletan bezala. Zuk ere honi erantzun behar zaiola uste baduzu, urtarrilaren 8an iluntzeko 19:00etan, Aiako kultur etxean egingo den bilerarako deia luzatzen dizugu. ■ **Aiarrek Ikurriñaren alde.**



# Gureak tailerreko langileak Zarautzera aldatuko dira urtarrilean

Eraikina zaharkitua egotea izan da aldaketaren arrazoi nagusia. Urtarrilaren 7an hasiko dira Zarautzko Abendaño industria gunean atondu duten pabiloi batean lanean

Abenduaren 20an hartuko dituzte oporrrak Orioko Gureak tailerreko langileek eta oporretatik bueltan ez dira lanera Oriora itzuliko. Izan ere, 1983tik herriko sarrerako eraikinean egon ondoren, Zarautzko Abendaño industriagunean da goen pabiloi batean hasiko dira lanean.

Harri Iruin, Gureak Orio languneko arduradunak esan digunez, eraikinaren egoera izan da aldaketarako arrazoia: *Eraikuntza nahiko zaharkitua dago eta, beste baten bila hasitakoan. Udalekoekin harremanetan jarri ginen Orion jarraitzeko asmoarekin. Baina Orion egitekoak ziren industria gunea atzeratu egin zen eta Zarautzen aurkitu genuen nasa bat. 2007an erosi eta obrak egin nahi bazituzten ere, krisialdiaren ondorioz, han ere proiektua geldituta egon zen. Gauzak atzeratu egin dira, baina obrak 2013an hasi eta Gabonetako oporretan leku aldaketa egingo dugu eta urteberriarekin hasiko gara Zarautzen, dio Iruinek.*

Horretarako makinak abenduaren 23tik urtarrilaren 7ra artean Orioko tailerretik atera eta Zarautzen jarri behar dituzte. *Gureak lanak ilaran egiten ditugu. Makinak barruan muntatu ziren arren, Orion desmuntatu eta Zarautzen berriz muntatu beharko bagenuku kostua igo ez ezik denbora ere luzatuko litzateke. Beraz, horma zati bat bota eta ahalik eta gutxien desmuntatuta aterako ditugu.*

Guztira 94 langile daude Orion –urritasun psikikoak edo buruko gaitza dutenak– horietatik %20 oriotar eta aiarrak; egun 22. Beste enpresa batzuentzat muntaiak egiten dituzte: txokolatinak bildu; automoziorako kableak; promozioak; kaxak; piezak; kremak... 17 bezero dauzkate, beraz, askotariko produktuak muntatzen dituzte.



Lanak ilaran egiten dituztenez, makinak ahalik eta gutxien desmuntatuta eraman nahi dituzte. KARKARA

## Zalantzak eta abantailak

Leku aldaketak batik bat garraioari dagokionez sortu ditu zalantzak senideen eta tailerreko arduradunen artean. Baina argi dute onbeharrez egingo dutela instalazio hobeetara doazelako. Gureak tren geltokiaren ondoan egotetik Zarautzen Abendaño egotera alde handia dago, baina kokapena, abantaila ere izan daitekeela uste dute. *Gure langileei nork bere burua aski izaten hobetzeko aukera emango die. Oriotarrek orain arte ez zuten tren hartzen eta orain tren eta autobusa hartzen ikasiko dute. Autobus publikoan joateak ere lagunduko die pertsona*

*guztiekin elkarbizitzen, bestela ghetto bat sortuko genuke. Batzuek ikasteko arazo gehiago izango dituzten arren, ez dugu uste arazo larririk izango dutenik, dio Harri Iruinek.*

## Udalarekin eta herritarrekin pozik

Herri badoazen honetan Udala, udaltzainak eta herritarrek eskertu nahi izan dituzte. Gugandik gertu izan ditugu eta edozer gauza eskatu izan diegunean emateko prest azaldu dira. *Hainbeste urte hemen pasatu ondoren penaz joango gara baina era berean Orion bizi izan dugunarekin pozik.*



# Abenduaren 22rako eskaintza azoka antolatu dute Arkupek eta Udalak

Gabonetako agendan hori izango da berrikuntza nabarmenena. Herribil, Olentzeroren eta Mari Domingiren etorrera eta haurren Gabonetako parkea ere izango dira



Udako stock azokaren antzeko itxura emango diote abenduaren 22koari. KARKARA

Gabonetako erosketak Orion egitea bultzatzeko asmotan, eskaintza berezien azoka egingo dute datorren abenduaren 22an, igandearekin, Orioko plazan Arkupekoek Udalaren laguntzarekin. Goizeko 10:00etan hasita 18 postu izango dira denetarik produktuekin.

Opariak biltzeko mahaia KARKARAK jarriko du, eta bertan laguntzaile egiteko aukera ere izango da. Baita KARKARAREN gainean jakin nahi diren bestelako gauzei buruzko informazioa eman ere..

## Gainerako ekitaldiak

Abenduaren 22an bertan, umeentzako tailerra antolatu du Mandalara taldeak. 17:00etan hasita, Kultur Etxean, Mandalak egingo dituzte, gero herriko zuhaitzean jartzeko.

Hilaren 24an, goizeko 10:45ean, kalez-kale kantari arituko dira Orioko haurrak. Arratsaldean, berriz, Olentzeroren eta Mari Domingiren etorrera 17:00etatik aurrera Arkupe, Txurumuski, Orioko Herri Ikastola, Zaragueta Eskola eta udalaren eskutik Olentzeroren eta Mari Domingiren etorrera izango da 17:00etatik aurrera Arkupe, Txurumuski, Orioko Herri Ikastola, Zaragueta Herri Eskola eta Udalaren eskutik.

Abenduaren 27an, gaueko 22:00etan izango da aurtengo Herribil ekitaldia. Harribilek antolatuta, Salatxo abesbatzak, Danbolin musika eskolak, Uhats taldea, Orioko Curriculum Sortzen taldekoak, Kilometroak 2014koak eta Talai Mendi dantza taldea izango dira bertan, besteak beste. Umeentzako Gabonetako parkea, berriz, urtarilaren 3an izango da, goiz eta arratsalde, Karelana.

## LABUR

### Karkara

#### Hilabetekaria urtarilaren 31n

Urte berriarekin aldatetak egiteko aprobetxatzeko joera dugu. Bada, aurten KARKARAK aldatuta izango duela gogorarazi nahi dizuegu lerro hauen bitartez. Hala, urtariletik aurrera hilabetekari izatera pasako da KARKARA eta lehendabiziko zenbakia urtarilaren 31n kaleratuko da. Hilabeteko azken ostiraletan izango dira datozenak, salbuespenak salbuespen, eta urtean 10 KARKARA argitaratuko ditugu.

#### Laguntzaile kanpaina Gabonetan

Herritarren babesa ezinbestekoa da KARKARAREN proiektuak aurrera jarraitzea posible izan dadin. Euskarri digitalak oraindik ez du dirurik ematen. Horregatik, proiektua babestuko duten herritarrak behar ditugu. Abenduaren 22an, igandearekin, merkatarien azokan mahaia jarriko dugu, Gabon garaian herritarrei KARKARA oparitzeko mezua zabalduz. Horrez gainera, 2014an etxetz-etxeko kanpaina abiatuko dugu laguntzaile berriak lortzeko. Iban Eiguren KARKARAKO publizitate arduraduna izango da kanpaina egingo duena.

#### Zerbitzuak

#### Postetxeko bulegoa toki berrian

Abenduaren 17tik hasi eta hilabete batez gutxi gorabehera Itxas Etxean izango da Orioko postetxea. Han utzi dieten lokalean ez dute telefono linearik izango eta, horren ondorioz, ezin izango da telegramarik edota burofaxik bidali. Aldaketaren arrazoia San Nikolas kaleko bulegoan hobe kuntza lanak egin behar dituztela da. Lanek irauten duten denboran sortu ditzaketen arazo eta eragozpenegatik aldez aurretik barkamena eskatu nahi dieten postetxeko zerbitzuen erabiltzaileei Co-reosko langileek.



Erabakien nondik norakoak azaldu zituen Jon Agirresarobek azaroaren 28ko udalbatzarrean. KARKARA

## 2013-2017 aldirako Orioko Udalaren euskararen erabilera-plana onartu da

Kontratazio publikoetako espedienteetan aplikatu beharreko hizkuntz irizpideak bertan behera utzi behar izan ditu Udalak Estatuko Abokatuak legea urratzen duela esan eta gero

Azaroaren 28an egindako udalbatzarrean, euskararen inguruko gaiak izan ziren mahai gainean. Hala, hartutako erabakien artean, 2013-2017 aldirako Orioko Udalera euskararen erabilera-plana onartu zen.

Planaren barruan sartzen dira, besteak beste, Udalaren irudi korporatiboan, barne harremanetan zein kanpokoetan eta udal baliabideetan erabiliko diren hizkuntza irizpideak zehaztea. Jon Agirresarobe euskara zinegotziaren hitze-

tan, *nahiz eta Orioko beste Udalekin alderatuz oso euskalduna den, asko daukagu hobetzeko: txostenetan, ahozko erabilerran, ordenagailuetako hizkuntzan...*

### Bizi-bizi festibala

Euskaraz bizi-bizi festibala egin zen aurreko abenduaren 8an. Ikusmina sortu zuen herritarren artean, izan ere Euskaraz Bizi-bizi kanpainaren barruan egindako bideoa ikusteko aukera izan zuten plazara gerturatu zirenek.

Baina, horrez gainera, Kataluniako *Plataforma per la llengua*ko kideak ere bertan izan ziren. Haien hitzaldi laburrean beren esperientzia hemen ere baliagarria dela adierazi nahi izan zuten: *Garrantzizkoa da hizkuntza ikasten ari direnei laguntza ematea. Ikastaro, klase eta gramatikaz harago, behar-beharrezkoa dute gune bat izatea hizkuntza praktikatu ahal izateko.*

Hala, haien ustez, zentzu horretan, *gutako bakoitza irakasle ona izan daiteke; adibide bikaina. Horretarako, hizkuntzarekiko konpromisoa txertatu behar dugure eguneroko jardunean: eskolan, lanean, familiarekin, lagunekin, erosketak egiterakoan... momentu guztietan.*

**ARISTERRAZU**  
jateetxea

Andatza auzoa AIA  
Tel. 943 83 45 21

*Lizaso*  
dekorazioa

Eusko Gudari, 48  
Tel: 943 83 07 84 Fax: 943 24 87 15

**Alustiza Autobusak**  
*Alustiza Bidaiak S.L.*

Autobus litera eta  
16, 19, 25 eta 56 plazakoak.  
Bidalatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel. 943 13 28 93/ 83 08 80. Mugikorra: 656 78 30 01- 656 78 29 99



# Joseba Tarantinok marka berria jarri du Oako eskaileretan: 10,89 segundo



Tarantino Oako eskaileretan behera. KARKARA

Kirol ekitaldi asko izan ziren sanikolasetan. Pilota jaialdiaz eta herri-kirol erakustaldiaz gainera, Oako eskaileretako desafioa, frontenis txapelketako finalak eta 3x3 saskibalo txapelketa ere izan ziren

Abenduaren 5arekin hasi ziren kirol ekitaldia sanikolasetan. Frontenis txapelketako finalerdiak jokatu ziren eta bertan erabaki abenduaren 8an zeintzuk arituko ziren parez-pare txapelerako lehian.

Askoren ikusmina, ordea, San Nikolas egunean zegoen jarrita. Oako eskaileretako desafioa zegoen jokoan iluntzeko 20:00etan. Iazkoari erreparatuta, Campos eta Tarantino ziren favorito nagusiak. Guztira 6 parte hartzaile baino izan ez ziren arren, maila ona ematekotan ziren bi favoritoak. Lehenengo saiakeran irrist egin zuen Andoni Camposek eta 11,23 segundo behar izan zituen iaz 10,99 segundotan marka jarri zuenak. Joseba Tarantinok lehenengotik hautsi zuen iaz Camposek jarritako errekorra, 10 ehunekotan hobetuz: 10,89 segundotan dago marka berria.

Gainerako parte hartzaileak, Ibai Peña, Aitor Ostolaza, Aitor Larraza eta

Joseba Altuna izan ziren, hurrenez hurren hala sailkatuak.

## 3x3 txapelketan 115 taldetik gora

Abenduaren 7an pilota partiden jaialdia izan zen frontoian. Otaegi aisa nagusitu zitzaion Garrido Venari eta Mikel Goñik eta Kokak mendean hartu zituzten Eugi eta Otxandorena. Hilaren 8ko fronteniseko finaletan Calcerrada eta Romero izan ziren txapeldun Albizuriren eta Bilbaoren kontra.

Egun berean jokatu zen saskibaloiko 3x3 txapelketa. Goizean 14 urtez azpiko 70 talde izan ziren elkarren artean partidak jokatzen hiru kategoriatan banatuta. Arratsaldean, berriz, 14 urtetik gorakoen 45 inguru talde izan ziren bi kategoriatan. Guztira 450dik gora jokalariek gerturatu ziren Karelara.

Herri kirolen erakustaldian ere jende mordoak bildu zen plazan eta xake txapelketak urteroko bide onari eutsi zion.

## LABUR

### Areto futbola

#### Mirotzen lehen garaipena

Bi puntu baino ez zituztela ekin zioten 12. jardunaldiari zegokion partidari abenduaren 14an Orioko Mirotzak taldekoek. Zestoan zuten partida Aizarnazabalen kontra. Irabazten zuen taldea ligako azkena izatera pasako zen eta ehen garaipena poltsikoratuta, 2-3, azken bigarren dira orain oriotarrak. Abenduaren 21ean Orion jokatu dute datorren partida eta atzetik Gabonetako etenaldia izango dute.

### Arrauna

#### Gaztetxoek 17 ontzi Hondarribian

Gipuzkoako aulki mugikorrek 2014ko ligari hasiera eman zioten aurreko abenduaren 14an oriotarrek Hondarribian. Infantil, kadete eta jubenil neska-mutilak izan ziren lehian: guztira 17 ontzi eta 53 arraunlari. Bost ontzik, gainera, helmugan lehenak izatea lortu zuten: skull bikoitzeko laukoak kadete nesketan eta mutiletan, skull bikoitzeko laukoak infantil nesketan eta mutiletan eta zortzikoak jubenil mutiletan. Gainerakoan ontzi bat bigarren izan zen eta beste lau ontzi hirugarren. Txukun hasi dute denboraldia.

### Herri-kirolak

#### Idi-demak Urteberri Egunean

Aian, urte berria hasteko, idi-dema izango da probalekuan, urtarilaren 1ean 12:00etan. Idi-pareak, bata Oribazarren bizi den Aitor Matxain errenteriarrena, eta, bestea, Ezkion bizi den Asier Zubillaga igeldotarrarena dira. Alde bakoitzak 1.200 euro jarri ditu jokoan. Itzainak etxe-koak izango dira biak, edo bietako bat libre hartu ahal izango dute, betiere gipuzkoarra bada. Idiek 1.100 kilo pisatuko dute gehienez, hortik gora, kilo bakoitzeko kilo eta erdiko gainkarga izango dute 1.500 kilo harriaren gainean.

**GABON EGUNEAN IREKITA EGUN OSOAN**

*Etorri estuñora baserritarrez jantzita.*

**Rosana Arruti**  
Argazki Estudioa

Alta Lertxundi 26 - Ormaiztegui  
fotorosanaarruti@gmail.com  
Tel. 943 835845

**bodegas ERRASTI, S. L.**

Eskualderako banatzailea  
Zudugarai, Getariako txakolina  
Ilagares, ardo gorri nafarra  
Bodegas Gailur: Señorío de Laurgain  
Gailur eta Arandegui,  
Arabar Errioxako ardoak

Eusko Gudar, 46 080 • 943 83 03 86 / 83 59 52 • E-posta: bodegaserrasti@euskalnet.net



# “Korrikarako propio prestatuta ez nagoela nabaritu dute nire hankek”

## Aritz Lizarralde

Arraunlaria eta korrikalaria

Arraunlaria da Aritz Lizarralde Orioko bigarren traineruan. Arraun entrenamenduetako korrika saioek sasoi betean egoteko ez ezik aurtengo Behobia-Donostia lasterketa entzutetsuan jubenil kategorian denborarik onena lortzeko ere balio izan dio.

### IRATI AGIRREAZALDEGI

Atletismorako propio entrenatzen den jendeak askoz denbora hobeak egiten dituela argi du Aritz Lizarralde eta Behobia-Donostia lasterketan emaitza ona lortu arren, ez du herrian salbu beste inon parte hartzeko asmorik. Hala ere, San Silbestre lasterketan gogoz egingo du korrika, giro onean, herrian bera zein mailatan dagoen ikusteko.

**Helmugara iritsi eta zure kategorian aurrea zinelak jakitean, zer sentitu zenuen?**

Postua arratsaldean jakin nuen eta ezustekoa izan zen. Behobiatik denok ordu desberdinetan ateratzen gara, batzuk besteengandik ordu erdira, esaterako. Beraz, helmugan ere horri erreparatu behar zaio. Iaz laguna eta biok oso atzean atera ginen. Aurtun dortsal hobealortu nuen eta pixka bat aurrerago aterata errazago, bestela atzean hainbeste jendekin lan bikoitza izaten da.

**Egindako denbora espero zenuen?**

Ordu eta 20 minutu inguruko denbora egitea zen nire asmoa eta uste baino bi minutu gutxiago egin nituen, gustura.

**Eguraldiak eragin al zizun lasterketan?**

Iaz euria egin zuen eta aurtengoa haizetsua izan da. Haizea kontra izan arren, hainbeste jenderen artean, norbaiten atzean jarri eta aprobetxatuta beti gutxiago nabaritzen da haizea.

**Zer izan zen zuretzat zailena?**

Azken bost kilometroak, ohitu gabe egonda, luze egin ziren. Gainera, denbora osoan, jendartean, ez dirudien arren, haizeak ere azkenerako kalte egiten du.

**Arraunean bai, baina jendeak ba al daki korrika ere horrelako maila duzunik?**

Orain arte herriko lasterketetan baino ez dut parte hartu. Behobia-Donostian ere, aurtun, irabaztera joan gabe, denbora ona egin eta kasualitatez izan naiz le-

hena nire kategorian. Parte hartzen dugun gehienok ez gara propio atletismoan ibiltzen, beste maila batekoak gara. Beraz, zorte kontua da; aurtun denbora horrekin lehena izan naizen bezalaxe, datorren urtean bosgarren izan nintke.

Gainontzean, Orion San Silbestren, baino ez dut parte hartzen eta aurtun salbuespena egin nuen Behobiatik Donostiarakoa baino lehen 15 kilometroko beste lasterketa batean Donostian. Oako eskaileretakoa ere ez nuen egin, hainbeste jenderen aurrean eta bakarrik korrika egitea ez da nire gustukoa.

**“Behobia-Donostian ere, aurtun, irabaztera joan gabe, denbora ona egin eta kasualitatez izan naiz lehena nire kategorian”**

“Entrenatu ezean alperrik da. Arraunean astean sei entrenamendu egiten ditut eta badakit prestatu ezean hori agerian geldituko dela”

**Atletismorako propio entrenatzen al zara?**

Arrauneko entrenamenduekin nahikoa. Denboraldi hasieran, gainera, korrika gehiago egiten dugu eta baterako balio duenak besterako ere balio du. Baina arraunerako entrenatuta egon arren, kirol ezberdinak izanik, Behobia-Donostian nabaritu nuen korrikarako propio prestatuta ez nengoela, besteak beste hanketan, eta horrekin sufritzen da.

Lasterketa hobeto edo okerrago atera arren entrenatu ezean alperrik da.

Arraunean astean sei entrenamendu egiten ditut eta badakit prestatu ezean hori agerian geldituko dela.

**Sei entrenamendu egun. Merez al du hainbesteko sakrifizioak kirolerako?**

Hasieran kostatu egiten da, baina behin ohitutakoan jai egunetan ere haren falta sumatzen dugu. Entrenamendu egun batzuetan gogo gutxi izaten da eta gero jai egunetan orduan gogo.

**Arraunean nola begiratzen diozu denboraldi berriari?**

Orioko bigarren traineruan ari naiz eta aurtun larri-larri salbatu ondoren denboraldiko helburua salbatzea da, ahal dela sufrimendu gutxiagorekin. Bestalde, ikasten segi eta denok hobetzea.



KARKARA

## Astearte goizetan azoka jartzen hasi dira plazan

Bi hilabetez egingo dute proba goizez; funtzionatu ezean arratsaldera pasatuko dute. Bost postu jarriko dituzte, baina proposamen gehiago jasotzeko aukera dago.



Lehen bi asteetan hiru postu jarri zituzte herriko plazan. KARKARA

Abenduaren 10ean azoka izan zen estreinako herriko plazan eta hemendik aurrera astearte goizero –08:30etik 12:30era– egitea da asmoa. Hala ere, datozen bi asteetan astelehenetan egingo dute Gabon festak direla-eta.

Lehen bi asteetan hiru postu egon diren arren bost postu jarri nahi dituzte aurrerantzean: umeen eta helduen arropa; jatekoena; fruta eta barazkia; txarkuteriako produktuena eta olibena. *Gabonak nahiko ezegonkorrak izaten badira ere urtarrilaren erdi aldetik aurrera plaza postuz beteko dugu, esan digu Jose Angel Matias azokako dendariak. Gainera irekita daude postu gehiago jartzeko proposamenetara.*

Matias berak ekarri du ideia Aiara herri txikietan azokak bultzatzen ari direlako. *Goizean eraginik ez zuela izango pentsatu arren, Aizarnazabalgo eredu ezagututa jarri genuen martxan, dio alkatetik. Bere ustez, Orioko azokaren konpetentzia ez da izango eta herriko merkatariek ere ez dutela oztoporik jarri. Alderantziz, onuragarria ere izan daiteke, jendea dendetara ere hurbildu daitekeelako.*

Oraingoz goizez egingo dute azoka, proba gisa, bi hilabetez-edo. Funtzionatuko ez balu, arratsaldera pasatzeko aukera ere mahai gainean dago.

## San Esteban parrokiako zimitorioko teilatua udaberrian konponduko dute

Konponketa lanak hasi bitartean elizkizunetarako sarrera-irteerak ate nagusitik egiten ari dira

San Esteban elizako berritze proiektua esku artean bazuten ere, konponketen beharra agerian gelditu da lanean hasi aurretik. Izan ere, zimitorioan konpondu beharrean zegoen habe bat puskatu egin da eta teilatuak behera egin du erortzeko arriskua handituz. Unai Manterola apaizak esan digunez, *egurra pitzatuta zegoen eta guztiz eten denean behera egin du.*

Oraingoz, zimitorioko konponketak egin bitartean, eskoratu egin dute teilatua. Dena dela elizkizunetan ez da inolako aldaketarik izan eta obrek iraun artean ere berdin-berdin izango dira. Bestalde, teilatuak behera egin zuenetik egiten ari diren bezala, hemendik aurrera ere atari nagusitik egingo dituzte eliztarrek sarrera-irteerak.

### Teilatua eta egurrezko egitura

San Esteban eliza hainbat aldiz berreraiki eta handitu dute eta konponketarik ere izan da. Badira urte batzuk obra handirik egin ez direla, mende laurdena-edo. Teilatuaren zurezko egitura saneatu eta eliza barne aldetik egokitu eta berrituzten 1984 eta 1986 urteen artean.

Proiektua oraindik erabat amaituta ez badute ere, oraingo berrikuntzetan zimitorioko teilatua eta egurrezko egitura berritzea baino ez dute aurreikusi, diru kontua medio ez baitago beste obrarik egiteko aukerarik. *Hala ere, kontuan hartuta negu betean gaudela ez da sasoirik egokiena teilatua konpontzeko lanetan hasteko, beraz, seguru asko udaberrian hasiko dira obrak eta eliztarrei jakinaraziko diegu, esan du apaizak.*



Habeak burniekin eutsi dituzte. KARKARA





Ezkerrean saritutako aiarren lanak; eskuinean kanpotarrenak. AIAKO UDALA

## Urko Galarraga eta Josune Zabaleta argazki lehiaketako irabazle

Iaz baino parte hartzaile gehiago izan dira, 80 inguru guztira. Andatza eta Santioko baserri, lantegi, paisaia, eliza eta monumentuak daude irabazleen argazkietan

Abenduaren 12an banatu zituzten aurtengo Aiako argazki lehiaketako sariak. Aiarren artean Urko Galarragak jaso du lehen saria *Ttipi-ttapa* lanarekin; Jose Anjel Aldaik bigarrena *Mandiora* argazkiarekin eta hirugarren saria Leire Sagastumeren *Eliza barruari* eman diote.

Kanpotarren sariak ere ez dira oso urrutira joan. Izan ere, oriotarrak diralehen bi saridunak Josune Zabaleta eta Koro Arratibel *Baserria* eta *Andatza, Refractarios Arrillaga* lanekin hurrenez hurren. Hirugarren saria, berriz, Oliver Perez zestoarrak jaso du *Santioko padurak* argazkiarekin.

Aurten, guztira, 80 argazkitik gora aurkeztu dituzte lehiaketara, iazkoekin alderatuta askoz gehiago eta herritar gehiagok ere hartu dute parte.

Epaimahaikoen arabera, argazkien kalitatea ere aurten hobe izan da. Beren ustez baliteke gaia zabalagoa izateak eragina edukitzea kopuruan eta kalitatean. Aurten, argazkilariek Andatza eta Santio auzoekin zerikusia zuten argazkiak aurkezteko aukera zuten: pertsonak, txokak, paisaiak... Gainera, herriko erdigunetik gertuago egotea ere eragingarria izan da horretan beharbada.

### Egutegiak

Saritutako argazkiak eta erakusketako ikusleek boto bidez aukeratutako beste sei lan egutegi batean jaso dituzte eta sari banaketaren ondoren etxetik banatzen hasi ziren. Urte berrirako, beraz, Aiako etxe guztietan izango da herriko hainbat txoko jasotzen dituen egutegia.

## LABUR

### Zerbitzuak

#### Kultur Etxea itxita

Gabonetako oporrak direla-eta Aiako Kultur Etxea itxita egongo da gaurtik, abenduaren 20tik, urtarrilaren 7ra arte, biak barne. Urtarrilaren 8an, beraz, martxan jarriko da berriz ohiko ordutegian.

### Gabonak

#### Ekintza ugari oporretarako

Gabonetarako hainbat ekitaldi antolatu dituzte herrian Lardizabal Eskolako Guraso Elkarteak, Xatur Gaztelekuak eta Aiako Kirol Elkarteak Udalaren babesarekin. Hilaren 20an, 17:00etan Etxetxon elkartu eta kantuan harrera egingo diete Olentzero eta Mari Domingiri, ondoren plazan Olentzerori gutunak eman eta txokolate jana izango da; Gaztelekuan ere izango da 17:00etan txokolate jana. Zinema saioak ere egingo dituzte abenduaren 23an, 30ean eta urtarrilaren 2an 17:00etan Kultur Etxean. 24an baserritarrez jantzi 09:00etan plazan elkartu eta auzoz auzo kantuan aterako dira Gabon eskea eginez. Herri kaskoan 17:00etan hasiko dira. 26an eta 27an puzgarriak eta jolasak egongo dira umeentzat, frontoian 16:00etatik 19:30era. Sarrera doanekoa izango da eskolako umeentzat, besteentzat bi egunetarako sarrera euro bat. Gazteentzat, berriz, 26rako pin-txo eta postre lehiaketa antolatu dute. Herriko Soziedadean izango da 16:00etan hasita eta parte hartu nahi dutenek hara azaldu baino ez dute egin behar. Abenduaren 27an Gaztelekua irekita izango dute gaztetxoek. Abenduaren 28an kirol txapelketa irekiak -pilota, pala, futbola...- egingo dituzte herrian, goizez 11:00etan hasita eta 16:30ean arratsalde. Eguna iritsi ahala zabalduko dute herrian txapelketei buruzko informazioa. Kirolean entrenatu ondoren, abenduaren 31n San Silbestre lasterketarako aukera izango da. Izen-ematea 16:30ean irekiko dute plazan eta proba bertatik abiatuko da 17:00etan. Urtarrilaren 3rako, berriz, irteera egingo dute Txuri Urdin izotz pistara. Joan nahi izanez gero aurrez eman behar da izena Gaztelekuan. Bestetik, Egan taldearekin dantzaldia egongo da 17:30ean eta ondoren, Bizar Zuri agurtuko dute aiarrek. Urtarrilaren 5ean, Errege Magoei etorrera egingo diete.

## Txoriak erruki

**K**aiolako txoriei buruz zer-bait idatzi nahian aspalditik nengilen. Nori ez zaigu gustatzen txori polit bat gertu edukitzea? Eta bera-ri txisturen bat jotzea? Horretarako zer egiten dugu? Txoria kaiolan eduki. Oso polita zara eta egon zaitez hortxe, janaria eta ura jarriko dizkizugu. Eta zuk kantatu egin behar diguzu.

Ederki. Kaixo, motel. Ezeren errurik izan ezin zezakeen bat kartzelaratu egiten dugu lehenengo. Eta gero kantatzeko eskatu. Konturatzen al gara zer egiten dugun? Eta hori baino handiagoa da, kantatu egiten digutela!

Naturak sortu duen txoritxo horrek, izango du ba eskubidea aire librean hegalaritaz izateko. Gu gizakiok, zergatik gara

hain geurekoiak? Eta ez hori bakarrik. Zenbait arrazakoa badira gainera, kumeak ateraraziko dizkiegu saltzeko eta abar. Bagara, gero...

Txorikume horiei deitu beharko diegu ba ume lapurtuak? Aurrena giltzapean jarri, kantarazi, eta kumeak lapurtu. Zein ulergaitz egiten ditugun gauzak.

Kartzelaratutako emakumeren batek, haurra izan duela jakiten badugu, bu-ruari birak ematen hasiko gara! Ea, kaiolako txoriari zer egiten diogun? Hasi bu-ruari birak ematen...

Lagunok, neure burua ez noa gorde-tzera ari naizen gai honetatik. Nik ere bai baitut txoria. Ez kantari ona. Ez halako

polita. Agapurni arrazako txori moko oker berde bat. Baina egunero ateratzen dut, goizean kafea egiten ari naizenean nire bizkarrean erabiliko dut, azukre on-tzitik ale batzuk mahai gainera atera-tzen ez badizkiot ez dit bakerik ematen, bainura noanean nire bizkarrean joaten da, eskuak garbitzeko lekuan aurrena izaten da bertan bere bustialdi xelebrea hartzeko. Arra da. Zintzoa eta garbia. *Pi-txu* deitzen diogu.

Neure bizikleta zaharrean, kaiola txiki batean jarrita paseatu izan dut, giro ona denean. Baina begira, esango balidate ez duzu *gehiago txoria kaiolatik atera be-har* bihar goizean irekiko nioke kaiolako atea, mendigain batera eramanda.

Begiratu diezaiegun txoriei airera eta zuhaitzetara. Eta esan, kantatzeko.



**Txokoak eta jendea**  
*Euskara guria,  
asko erabilia hobia*

Egun guztiak euskaraz bizi behar diren arren, Euskararen Eguna hilaren 3an ospatu zuten Lardizabalgo ikasleek. Bertsotan aritu eta gero Nikolas Zendoia bertsolari eta idazlearekin izan zuten solasaldia nagusiek; txikientzat ipuin kontalariak aritu ziren. Arratsaldean, *Txapa-sek* lagunduta, kalejiran ibili eta txokolatez goxatu zuten eguna.



ardoak, urdaikiak, gaztak,  
kontserbak, janari prestatuak

**etxeraino  
eramaten ditugu**



**943 83 09 84** aita lertxundi, 36  
ORIO



**mauka**

PAPERDENDA LIBURUAK ETA OPARIAK

TEL - 943. 572083  
FAX - 943. 571190  
lasenjo@hotmail.es

INES ASENJO  
IBAI ONDO 13  
20810 ORIO

**HAIZE & BERRI**  
tuboma-jatetxea-kafetegia

Plater konbinatuak,  
bekatak,  
hamburgerak,  
razioak,  
eguneko menua...

eta etxera eramateko zerbitzua!

Bizka lurrak, Bidea 1 - 943 83 16 22 - Internet: www.haize-berr.com

**ITZIA**  
kirolak

Tel. 943 83 31 03

**izarra**  
GIZON MODA

Boleo, 1 tel. 943 13 39 30 ORIO  
www.izarra.com

Carmen eta Txomin  
ARRANDEGIAK



943 83 05 37 / 943 83 27 47



**www.karkara.com**

Albanoak, argazkiak, ilustrak, agorak, korioak, apurrak...

Fresko-fresko, zuretzat!

**URANGA**  
burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

fer.uranga@euskalnet.net  
Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5

**SU  
KIA**  
TABERNA - JATETXEA

On egin eta gero... hartu KOPA eta TOPA!!

- OILASKO ERREAK ERAMATEKO
- EGUNEKO MENUA
- EGUNKARIAK
- OGIA

TF : 943 892 129  
ABAROMENDI 36, 1. BARRIOA

tel/fax: 943 89 00 69  
Bizkaia kalea, 4 - 20.800 ZARAUTZ



ITURGINTZA, BEROGINTZA  
GASA, BAINU ERAKUSKETA

Presupuestuak, konpainien, jabeak

**PERTSIANAK**  
AKO MAZ

Aluminio, PVC  
Venezianak  
Motorrak...

Tel. 943 13 39 01 Mugikorra 600 70 52 27

**MIRANDA**  
ARTE LAKAR

tarima, ate, leiho, eskalera...  
behar diren arotz lanak  
egingo dizkizugu

Udaneta bidea, 1 - 669 42 32 70 - ZARAUTZ

**LORETXU** JATETXEA



Eusko Gudari, 18 Tel: 943 83 00 07

**LURDES**  
ARRANDEGI



Eusko Gudari, 4 - Tel. 943 83 00 24

Ile apaindegia  
**MARIJO**

Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8 - bajo  
Tel. 943 13 47 29  
ORIO

**KOLON TXIKI**  
gitarisegia  
jateak



Herriko Enparantza, 4  
ORIO  
Tel. 943 83 00 44

943 572 870



**KOASTA**

Wifi zerbitzua  
Kopak, gau giro aparta...

HAUR ETA HELPUENTZAKO JANTZIAK

**ROSA**

GARBINE ARRILAGA  
ARITZAGA BALEA, 2 - TEL. 943 13 59 43

10% DESKONTUA FAMILIA UGARIENTZAT

**ITSASADARRA, S. L.**  
Jose Angel Iradi Udabe



aseguru artekaria  
finika administratzailea  
gestoria  
enpresa berriak sortzeko diru laguntzen kudeaketa

Tel 943 89 40 29 Fax 943 83 54 98 itsasadarra@itsasadarra.com  
Ibai Ono 4, behea. 20810 Orio

**INDO**




Garraio frigorifikoa  
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Olaskoegia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO

# Ikusteko, entzuteko eta ikasteko organoa

1859an Jose Antonio de Oriak eraiki zuen organoaren esentzia mantentzen du haritzez egindako Orioko elizako organo berriak. Azkeneko aldiz 1965ean berritu zen, **ia 50 urte pasa dira ordutik hona, eta beste 150 urterako egin dute** oraingoa. Gaur arte egin ez den bezala didaktikoa da, gainera.

**TESTUA: IKER GURRUTXAGA**  
**ARGAZKIAK: KARKARA**  
**ETA MAIALEN SARASUA**



rioko Bariko San Nikolas eliza berritu zela ez da denbora asko pasa. Bi urte eskas. Baina bi urte horietan bazen zer-bait guztiz berri-

tuta uzteko beharrezkoa zena: organoa. Bi urte eta gero berri jarrita dago elizan.

Gustiz mekanikoa egin dute, XVIII-XIX. mendeakoen gisakoa. Mekanika aldetik sinpleenak dira eta piezaren bat puskatuz gero, guztia da egurrezkoa. Hala, edozein arotzi pieza berdina egiteko eskatu eta aldatzeko aukera izango dute Orioko elizakoek. Elektrikoa jartzea pentsatu zuten hasieran, baina hamar urteren buruan arazoak ematen hasten direla-eta, garai bateko bideari eustea erabaki zuten.

Xabier Lizasoren hitzetan, *txorakeria guztiak kendu zaizkio organoari. Hasieran organo oso klasiko bat proposatu zu-*

*ten, baina, fatxadari dagokionez, ez zitzaigun asko gustatu. Aurrekoaren moldean segitzen zuen, politagoa zen –ez zen oso zaila, Gipuzkoako organorik itsusiena baitzen Oriokoa, diru gutxirekin egina zelako-edo...–, baina serioegia. Bigarren proposamen bat eskatu zuten eta modu hartako hiruzpalau proposamen egin zizkieten: guztiak ados jarri ziren dagoe-nak behar zuela izan Orioko organoa.*

Elizaren itxura berriarekin bat egiten du organo berriak, argitasuna eman dio koruari. KARKARA





Elizaren estetika berriarekin akordean dator organoa, berritu zenetik argitasun asko hartu baitu elizak. Lizasoren ustez *harribitxi bat daukagu elizan eta herritarrek horren kontziente izan behar dute. Arraunetxe egin zuten eta hura ere sekulakoa da, baina hau ez da atzera geratzen. Alderagarriak dira. Herritarrak ohartu behar dute sekulako instrumentua dugula esku-eskura.*

### Beste organoekiko desberdina

Beste organoekin alderatuz duen ikuspegi didaktikoa da berrikuntzarik nabarmenena. Soinu aldetik inork uste baino hobeto geratu dela kontatu digute lanean jardun dutenek, bai organogileek bai jotzaileek. Sorpresa izan da guztientzat. Bazekiten ongi geratuko zela, elizak organoarentzako oso akustika ona duela, baina ez zuten uste emaitza hain ona izango zenik.

Esate baterako, Donostiako Santa Mariako elizakoa Europako organo onenetakoa da, *Cavaillé-Colle* egina, baina elizako akustikak ez dio batere laguntzen. Gipuzkoan *Cavaillé-Coll* organo dezente daude. Frantziarra zen *Cavaillé-Coll* organogilea eta munduko organo onenetakoa bereak dira. *Stradivarius* biolin marka ezagunaren parekoa da haren izena eta ospea. Frantzian, esaterako, Pariseko Saint-Sulpice, Sacre-Coeur eta Notre-Dame elizatakoak bereak dira.

Bere azkeneko hiru organoak Gipuzkoan egin zituen, Santa Marian, Azkoitian eta Loiolan. Horren ondorioz, Orioko ere organo sinfonikoa egitea nahi zuten aditu batzuek. Horiekin lehiatzea ezinezkoa izango zitzaie la iritzita, zer bait berezia egin behar zela eta beste bide bat hartzea erabaki zuten Orion. Bachen musika jotzeko aukera izatea nahi zuten. Musika erromantikoa eta barrokoa, biak jotzeko aukera izatea. 200 inguru urte iraun dezakeen organoa.

Alde didaktikoarekin, hiru helburu lortu nahi dituzte: instrumentua benetan baloratzen jakitea turismo erakargarri bat izatea, eta musika ikasle berriak zaletu eta organo-jotzaileak sortzea.

*Umeak eskoletatik, edadetuak irteeretan, erromesak... ea elizara etortzen diren eta diru pixka bat uzten duten organoak bere burua mantendu dezan kontatu digu Xabier Lizasok. Estatu guztian organo bat barrutik ikusteko dagoen aukerarik onena da hau. Gainera, Oriok berezko erakargarritasuna du: erria, hondartza, arrauna, Goiko Kale... Bada, orain, organo gehitu behar zaio erakargarri turistikoari gaineratu du musikari oriotarrak.*

### Berezitasunak

1965ean berritu zen organoa oso egoera



Erregistroen izenak euskaraz jarri dizkiote organoari Unai Manterolaren ekimenez. MAIALEN SARASUA



Mekanika guztia bistan jarri dute bisitariek funtzionamendua ongi ikusi dezaten. MAIALEN SARASUA

txarrean zegoen. Haren hodiak bakarrik kontserbatu zitezkeen, gainontzeko egitura zeharo hondatuta zegoelako.

Behin berria egin behar zela ikusita, bi teklaturik hirura pasatzea nahi izan zuten. Diru pixka bat gehiago kostatzen zen hori egitea, baina elizarentzat pixka bat hori asko zen. Organoa bukatu gabe uztekotan izan ziren, hiru teklaturekin egitea erabaki zenean. Beraz, aukeretako bat hirugarrena beste fase batean egitea pentsatu zuten. Hodi zaharrek eta bi teklaturekin egin eta aurrerago egingo zuten berria.

*Parrokiko taldeak apustu handia egin du organoaren alde, Unai Manterola apaiza estu jarri zen une batez, aurrekontutik irteteko arriskua ikusten zuelako, baina taldekideek lasaitu eta aurrera egin zen. Azkenean, aurrekontuaren barruan egin da organoa kontatu digu Xabier Lizasok. Aurrekontuan organo elektrokia aurreikusten zen, baina mekanikoa egin denez, diru bera erabilita hirugarren teklatura sartzeko aukera izan dute. Horrez gainera, kontsola*

goian dago eta horrek ere asko merkatzen du organoa. Izan ere, modu horretan teklak eta hagatxoak lotzen diren bidea askoz zuzenagoa eta laburragoa da.

Aurrekoaren hodi gehienak berritu egin dira eta lortutako emaitzarekin oso pozik geratu dira. *Aurreko erregistroak politak ziren eta orain dotoreago daude. Kaxa espresibo baten barruan sartu dituzte gainera azaldu du Lizasok.*

Sartu eta mekanika ikusten da beira baten azpian, lurrean. Hauspoetan eta sekretuetan ere kristalak jarri dira mekanika guztia ahalik eta ondoen ikusteko. Barrutik guztiaren funtzionamendua ikusten da eta organo-jotzaileak berak ere txundituta geratzen dira hori ikustean.

Oscar Candendorena izan da organoa estreinatzeko zikloko kontzertuetako bat. Organo-jotzailearen hitzetan, *organo zoragarria daukagu Orion. Organo mekanikoa da eta organo mekanikoa onena dela onartzen dagauregun. Gusturajodut eta lehengo organoaren erregistroak izatea oso interesgarria da.*



Lehen hilabeteen bisitari asko izaten ari da organoa eta, orokorrean, harrituta eta pozik irtetzen dira barrura sartzen direnak. KARKARA

Federico Acitores. Organogilea

## Erronka berezia eta interesgarria

**M**artin Lizasoren bidez egin genuen lehenengo kontaktua.

Aspalditik ezagutzen genuen elkar, Donostian duen etxean jarri nion organo baten harira. Bera izan zen guri deitu eta Orioko elizako organoa berri behar zela jakinarazi zigun lehendabiziko pertsona.

Orduan hasi ginen lanean eta hainbat proposamen egin eta gero onartu zuten orain jarri dugun organoarena. Lehendabizi zirriborroa egiten da eta diseinuaren gutxi gorabeherako bat. Behin onarpena jasotakoan guztia kalkulatu eta Pascal Teubelek planoak egiten ditu txukun.

**Benetan pozik geratu gara egindako lanarekin**

Pisua kalkulatzeko ezinbestekoa da, koruak organoaren kargari eutsi behar baitio. Behin hori eginda, arotzak, mekanikaria, hodigileak,

harmonizatzailea... guztiek egiten dute beren lana eta azkenik muntaketa.



Tailerrean muntatzen da lehendabizi, guztia bere tokian dagoela ziurtatu behar baita elizara eraman aurretik. Xabier Lizasoren ekarpena izan da didaktikoa izatearena eta egia esan guretzat ere oso berezia eta interesgarria izan da gisa honetara egitea.

Benetan pozik geratu gara egindako lanarekin, erronka garrantzitsua zen eta ondo egin dugulakoan nago, batez ere jendeak esan dizkigunak entzun eta gero. Guztira 2013 hodi, 34 erregistro eta 3 teklatu ditu. Lehen ezinezkoa izango zen erreperitorio zabala jo daiteke hemendik aurrera Orion.

Xabier Lizaso. Musikaria

## Aitzindaria izango den organoa

**E**z dakit munduan beste organo didaktikorik izango den. Jon Agirresarobek dio nire

idea izan zela, nik diot berea izan zela... Ez dakit noren ahotik, baina bilera *potente* baten ondoren sortu zen ideia. Organogileekin izan genuen bilera korapilatsu baten ondoren.

Acitoresek orain eskertzen du hartu genuen erabakia, oso pozik dago. Haserrealdi hartan ideia asko sortu ziren

eta berak ere sekulan egin ez zuen organoa egin du orain. Organista guztien komentarioak oso onak izan dira.

Ehun organo egin ditu eta orain eredutzat dauka

Orioko organoa.

Bide bat ireki du organo honek eta ziur nago kopiatur egingo dutela. Goitik behera aldatu genien

proiektua eta ez zitzairen oso ongi iruditu. Plano guztiak aldatu behar izan zituzten-eta.

6-8 hilabetez beren organoak ikusten jardun nintzen 2011ko Gabonetan egin genuen bilera horren atzetik. Guztia ondo aztertu behar zen erabakiak hartu aurretik, izan ere halako zerbait behin egiten baita eta denbora luze-rako, gainera.

Atal didaktikoa nirekin landu zuten. Gisa honetako lehendabiziko organoa izan da haientzat eta ez dut uste azkena izango denik. Aitzindaria izango delakoan nago.



**6-8 hilabetez beren organoak ikusten jardun nintzen 2011ko Gabonak eta gero. Guztia ondo aztertu behar zen**



# Matriuska

**M**atriuska bihurtzeko garaia iritsi zait. Lasai, ez dut sagar bat erditik ebakitzean bezala tripa alderik alde moztuko. Odol tantak garbitzen zailak dira, eta pentsa orduan odol putzuak. Matriuska izango naiz hurrengo hilabeteotan, baina kremailerarekin josiko ditut egurrezkoak beharrean trapuzkoak izango diren kapak.

Hau aspertua. Kapa bat lotu, bestea, hirugarrena, laugarrena. Korrika apustuan egiten dudana izaten da janzte-arena. Tarte handiagoak hartuz egiten dut alderantzizkoa. Telazko gizontasunak askatzea gogorra da benetan. Dedio, hotz galanta izaten da etxe huts hauetan.

Hura da gure bisajea, jelak denaren gaina hartzen duenean. Abrigo handi eta bufanda lodien artean galtzen zaigu burua. Eskerrak euskaldunak burugogorraz aparte buru handiak ere egin gintuzten. Bestela parekoa ezin ikusi eta kaleak bolaleku bihurtuko genituzke.

Negu gorrian berezko baldarkeriari tipula kapen endredoa gehitu behar izaten diogu. Batzuetan astronauta bat naizela pentsatzen dut. Espazioan bezala, mugimendu guztiak ezin polikiago eginez. Ba al da gauza tristeagorik kalean aspaldiko laguna ikusi eta estutu eder bat eman nahi eta bion artean jantzizko pareta lodia sentitzea baino?

Baina guztietan okerrrena eskularrue-na da. Behatzak lodiago eta behatz artea estuago. Ezertarako gai ez naizela irudi-



tzen zait. Baina zirkulazio txar honek ez dit uzten beraiek gabe bizitzen. Are gutxiago bizikletarekin alde batetik bestera nabilenean, presaka beti. Horixe baita bestea. Ez baita erraza neguan presaka ibiltzea. Erlojuari desafioka begiratzeak zailtasunak izaten ditu horrenbeste trapuren mende garenean. Esan bestela, zuek nola moldatzen zarete neguan han urrutian dauden bi orratz horiek ikusteko?

Kale erlojuen aldeko aldarria egin nahi dut. Negua errazten ziguten horiek. Pila bukatu aurretik itzali egin dituztenak. Denok gogoratuko duzue kutzakoa, kolore kursidun hura. Itsusia baino itsusiagoa izanagatik erabilgarria zena oso. Kanpandorrekoa estrategikoa izan da beti. Eguneroko erreferentzia trenaren harapatuko banuen. Baina hura ere aspaldian itzalean da. Bakarra dugu erreferentzia orain herrian, baina oraindik ez digu euskaraz ikasi erloju berdeak. Ia noiz.

**Ba al da gauza tristeagorik  
kalean aspaldiko laguna  
ikusi eta estutu eder bat  
eman nahi eta bion artean  
jantzizko pareta lodia  
sentitzea baino?**

**AMAIA ESTANKOA**

Tabakoak  
Prensa

Amia Larrinaga  
M. 655 722 367 - Fax: 726 007 - Tlf: 943 793 12 12

**24 ORDUKO  
TARRETTUA**

**IGLESIAS  
SARRAILAGILEAK**

WWW.IGLESIASCERRAJEROS.COM

Javier Iglesias Fernández  
637 723 308  
iglesiascerrajerros@yahoo.es

**ROBIO ORIO**

**MANTEROLA S/L**

ESFERA ETA RETENTZIOKO  
BALBULAK

Santiago auzoa - 18 postakutxa  
Tel: 943 830 743  
Fax: 943 134 636  
E-mail: trimanterola@trimanterola.com  
20810 ORIO - GIPUZKOA

Esferako balbula  
AENOR kalitate ziurtagiriduna

**Nahikari**

HAIR DENDA

Arrantzale Kalea, 35  
28100 - Orío  
Tél: 943 83 36 30  
www.nahikari.es

**Joana Murgiondo**

Aseguru-agenzia

**ASEGURUA**

C C I  
CARERA, CILVET, LACORT Y CIA, S.A.

Abeslari, 4- 2. esk.  
Tfnoa: 943 13 46 07

FISIOTERAPIA Garikoitz Aristegi eta Natalia Wereszen  
NUTRIZONISTA Garbiñe Aizpuru

**sinergia** investigación  
fisioterapia

ibai ondo, 1, behe-oina | ORIO | 943 13 05 77 - 685 71 85 95

**LEUNDA OKINGEDIA**

**ORDUTEGIA**

ESTILOKIDETA - LARABATENA 7:00 - 20:30  
ALDOR (EN JE SUKUTEN) 7:00 - 13:30  
Tlf: 943 85 66 67

**Sagasti  
LEIHOAK**

ROBERTO SAGASTI

Tf / fax: 943 13 00 77  
sagastileihoak@telefonica.net  
Arrantzale kalea, 65  
20810 Orío (Gipuzkoa)

# Moda diseinugile, zergatik ez?

**1** 8-19 urte. Pentsatu gabe egingo dizuten galdera dator: zer ari zara ikasten? Erantzuna prest: Modaren Diseinua. –Une batez besteari aurpegira begiratu eta... Bai! Hau ere erori da! Aurpegi arraroa bistara!–

Baten batzuk galdetuko diezue zuen buruei zergatik diodan hau. Milaka instant izan ditut egoera honetan, –zu zerbait gehiago egiteko kapaz zara!– Mmmm... Eta nire galdera da: ba al dakizu bada zer den?

Batzuen ustez orratz bat hartu eta telatxo puska batean, hariarekin lagunduz zulotxo batzuk egitea da –medikuek zauri bat itxi behar dutenetan puntuak ematen dituzten bezala–, edo bestela aldizkarietan agertzen diren argazkiak, pasarelak, *streetstyle*-a, pertsonaia famatuak, eta antzerako gauzei buruz jakitea da, zein tendentziarik berrienak jarraitzea, zein erosketetan eguna pasatzea.

Benoba, ahaztu hori dena.

Egia esan behar badut, nik ez dut uste moda fidelki jarraitzen dudarik, eta ez dut hilero arropa erosten –nahiz eta gustatuko litzaidakeenik ez dudanez zatatuko: P–.

Moda, hori guztia baino bereziagoa iruditzen zait.

Txiki-txikia nintzela, nire amona –modista da– josten ikusten nuenean, ni neu ere jostuna izango nintzela esaten nion. Hark ordea beti esan izan dit ezetz, bizkarretik eta oinetatik sufrituko dudala. Gero, andereño izateko grina izan nuen –txikitako kontuak–, baina Modaren Diseinuaren karrera existitzen zela jakin bezain pronto salto egin nuen mundu honetara.

***Txiki-txikia nintzela, nire amona -modista da- josten ikusten nuenean, ni neu ere jostuna izango nintzela esaten nion. Hark ordea beti esan izan dit ezetz, bizkarretik eta oinetatik sufrituko dudala***

Orain, Bartzelonatik diotsuet: *Ez da zuek uste duzuen.*

Lau egunetik behin egingo dut lo lasai –eta hori zortea izanez gero–. Milaka lan astero entregatzeko, estresa, sufrimendua, nerbioak, negarrak...

Hori da modaren mundua. Baina ez hori bakarrik, hori duen alde txarra da. Entregatzen dudarik bakoitzeko nire zati bat doa. Nire sormena garatzen doala ikus dezaket begiekin. Inoiz pentsatuko ez nukeena irteten da nire burutik, bihotzetik eta eskuetatik. Azken finean diseinuak poesia dira. Inspirazio iturritik hitzak idatzi, poesia, eta poesia honetatik ateratzen ditut nire diseinuak. Buruan ikusten ditut irudiak, oihalen erortzeko modua, arropen bukaerak, koloreak... Nire barneetik irteten dira, nire parte dira, nire zati.

Ez da denda bateko erakusleihoan ikus daitkeen maniki argal –ezinezko– baten gainean dagoen trapu zahar bat, Asiako haurrek jostia –hori hurrengo baterako gaia, milaka orri beharko nituzke-eta...–, lehenago konparatuko nukeen artista baten koadro batekin. Honenik ez dut esan nahi moda artea denik, baina, azken finean biak sortzailearen pentsamendu, sentimendu zein sentsibilitatearen fruitu dira.

Honekin guztiarekin esan nahi dudana zera da: moda uste duzuen baino sakonagoa da. Ez da karrera *kutre* bat, benetan gustatu behar zaizu, baina batez ere, benetan prest egon behar duzu mundu honetan sartzeko, ez baita batere erraza, eta dedikazio eta sakrifizio handia eskatzen baitu. Bi hankak aurrean jarrita, zure buruagan konfiantzarekin, eta gogo dezenterekin osatuz, niretzat behintzat ogibide perfektua den hori lortzeko prest zaude. Eta nik ez diot alde egiten utzi nahi. Tranpolinera igo eta salto egingo dut. Kosta ahala kosta, mundu konplexu horretan nire lekua aurkitzera noa.

Bitartean, norbaitek zerbait nahi badu –publizitatea egina: P–.

Enkarguak onartzen ditut, gustu handiz gainera!

## Nire honetan Lore Berasaluze

### KARKARAREN AHTA

**T**eknologiaren aroa azkar doa gero! Hain estimatua eta baliatua den informazioaren kudeaketa lanbide egin dugunontzat ere ikaragarritzakoa da gizarteak hartu duen abiadura. Hara sekulako azpiegiturarik gabe zeinen azkar doan tren!

KARKARAK ere tren horretan joan nahi du; ez bagoira salto egin eta *pika* noiz pasako den zain egoteko, ez. Guk gidatu nahi dugu tren: egurra ekarri, tximinia berotu, trenari jaten eman, motorra zaindu, erabiltzaileak goxatu, bidaia erosoa egin dagien bermatu; gero eta bidaiari gehiago hartzeko prestatu.

Euskararen normalizazioan laguntzeko sortu zen bere garaian proiektua, baina askoz gehiago da gaur egun: herriko merkataritza sustatzen eta euskal komunitatea eratzen eta indartzen laguntzen du; berriak herriarren belarrietaraino eramaten ditu; irakurketa bultzatzeko tresna da; jendea ezagutzeko eta gizarteratzeko bidea egiten du...

Eta aldatzera, hobetzera dator. Aiako eta Orioko geltoki zaharretik abiatzera doan KARKARAREN tren berriak herriar guzti-guztientzako du lekua. Abiadura hartu bitartean, geldialdiak han-hemen egingo ditugu bidaiaria egokitzen joateko. Abenduaren 22an egingo dugu aurrenekoa Orioko plazan. Igo nahi duzu gure trenera?



**---IZARRA BIDEOAK---**  
**ZORIONAK ETA**  
**URTE BERRI ON**  
 10 HILABETE INTERESIK GABE

elektrogailuak  
 telebistak  
 mugikorrak  
 tabletak

eskaintza gehiago

**GALAXY Tab3**  
 8Gb  
**195€**

**SAMSUNG 32"**  
**269€**

**2DS**

Nintendo+Pokemon jokoak  
**144,95€**

**TIEN 21**

IZARRA BIDEOAK - EUSKO GUDARI - 44 - Tfnoa: 943 833 881 - 20810 - ORIO - GIPUZKOA

obrak proiektuak erretornak errenbilitazioak txostenak lizentziak

**XS** arkitektura

borja agirresarobe lopetegi 635 73 17 22

edariategia

**ANTILLA** jeltseritza

Nirakari Kalea, 2 - Tel: 943 83 23 00

**LUXARBE** igeltseritza

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu. ☒

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe ☒

Lan txukuna eta merkea ☒

Tfnoa: 943 83 59 00

**TANATORIO ZARAUTZ**

EUROFUNERARIAS TALDEA

Hileta eta zerbitzu orokorrak

\* Donostia eta probintziako ospitaleetan  
 \* Aldioroko zerbitzua  
 \* Belatorio gelak  
 \* Koroak, eskelak, tramitazioak...

Araba kalea, 35 Zarautz  
 Tel: 943 89 49 37 / Fax: 943 89 49 41  
 e-mail: harrespil@harrespil.net

**AIRIDATZA** modas

Eusko Gudariak, 7 • Tel./ Fax: 943 83 10 88 • 20810 ORIO

**azkue**

Tf: 943 13 04 38

**uranga** autozerbitzua

**Aliprox**

Eusko Gudariak Kalea 13-15 ORIO  
 943 83 38 75

**ARKAITZ** Taberna

Pintxoak, plater konbinatuak eta ogitarleko mundialak

ABESLARI KALEA, 4 TEL: 943 83 16 57

Igo zaitez haize berrietara!

**Galerna I**

943890416 - 677149934  
 galerna1orio@hotmail.com



# Gaia emanda Herriko festak

*Hilabete hasieran pasa ziren San Nikolas festak eta adin askotako jendea bildu da ekitaldi eta ordu bakoitzean. Zein begiz ikusten dituzue herriko jaiak?*

## Taloak festan murgiltzeko aitzaki

**O**rioko Esperientzia Eskolako ikasleok astelehenetan elkar-tzen gara eta ikasten ari garen bitartean une atseginak igarotzen ditugu. Ondo pasatzeaz gain, gure arteko harremanak sendotzen ditugu eta gure bizitzan ikasi gabekoak ikasi. Gainera, 50 urtetik gorako edonork ditu gurerako atekak zabalik.

Urrian hasi ohi dugu ikas-turtea eta ohartzerako azaroa. Azaroan festetara zuzentzen da gure pentsamendua –gehien bat talo taloak egin behar ditugunok prestatu eta antolatu behar baititugu–. Gehienok horren zain egoten gara. San Pedro eta San Nikolasetan egiten ditugu taloak, gure herritarrei guk txiki txikitatik ikasi duguna eman nahi diegulako, taloak. Aldi berean taloak egiten ari garenean gure artean ere oso ondo pasatzen dugu.

San Nikolasak, festak oro har, izan ohi dira gure elkarriketarako gai ere.

**Hutsuneak ere sumatu ditugu festetan: arratsalde eta ilunabarrean musika, adibidez, garai bateko musika mexikarra, bailableak...**

Aurretik ez ezik, festen ondoren ere hitz egiten dugu jai egunez ere. Lanean soilik ez, festetan ikusle modura ere hor egon baikara. Esaterako, San Nikolas bezperan, txupina bota eta bandera igo zituztenean une hunkigarriak pasa genituen, oso ederra izan zen; baita bideo emanaldia eta ostiral goizeko meza ere. Jaio berriei egin zieten ongietorria ere asko gustatu zitzaigun.

Hala ere, gure txanda ostiral arratsaldean izan zen, urduri baina hunkituta taloak egin behar genituela eta.

**ZIA**

Festetan giro ona bizi eta azpimarratu behar da, noski, baina hutsuneak ere sumatu ditugu: arratsalde eta ilunabarrean musika, adibidez, garai bateko musika mexikarra, *bailableak*... Haurrak eta gurasoak ezik gu ere animatuko ginateke horrelako erromeria giroko kantuekin dantz egitera, gazteagoak ginela egiten genuen moduan.

Gainontzean primeran pasa ditugu herriko festak; nahiz eta paseatzera irten eta autoetako atzerako ispiluak, seinaleak, kartelak... apur-tuta topatu. Seguru hori egin dutenek ez dutela etxean gauza bera egiten.

Festetan, jende ugari-k parte hartu duela esan genezake. Beraz, zorionak festak antolatzen dituzuen guztioi eta eskerririk asko taloak egiteko aukera eman diguzuelako!

**Orioko esperientzia eskola tallerreko ikasleak**

## Festetan ere mezuak daude

**M**ezu asko bialdzen dizkiogu gizar-teari jaien bitartez.

Aurten festa batzordeak mezu horien inguruan hausnartu du, diruaren xahutzea ekin eta euskararen erabilera zein emakumeen presentzia publikoa bultzatzeko neurriak martxan jarritz. Beraz, ahaztu baino lehen beraien lana zorionduko dut; horren ondorio izan baita, nire bizitzan lehen aldiz barraketan Itoitz taldearen abesti bat entzutea, hori da jarraitu beharreko bidea. Baina badago zer hobetu. Zoritzarrez bertso emanaldiko protagonisten artean emakume bakarra egotean eta Pentamonix taldearen kontzertua erortzean nesken presentzia urri geratu zen. Hala ere, Maialenen hitzak ekarriz: *Urruti beti dago urruti abitzen ez denarentzat*.

**Diru gehiago jarri genezake kontzertuak ekartzeko. Azken honek seguruenik ez luke funtzionatuko orokorrean ez baitugu kontzertuetara joateko ohiturarik**

Baina bada zer pentsatu oraindik, *Izan zaitez tanta* triki poteoaren presentzia, hots, giza eskubideen aldeko mezua zalantzan jarri baitzen, Euskal meza edo meza nagusia, azken finean ebanjelioan oinarritutako mezua, baino lehenago.

Mezuak alde batera utziz aipatzekoa da Herriko Plazak behin ilunduta nola galtzen duen giroa. Egia da Udalak, Txosna Batzordeak eskatutako toloak ipini arte plaza ez dela erabat babestuko, baina,

hala ere, berreskuratu behar dago orain lauzpabost urte lorturiko herri jai giroa. Agian musika estilo anitzagoak ipintzea erakargarri litzateke, hiru egunetan ber-

bena ipini beharren –horietako bat Pentamonix erori zelako izan arren–, edo diru gehiago jarri genezake kontzertuak ekartzeko. Azken honek seguruenik ez luke funtzionatuko orokorrean ez baitugu kontzertuetara joateko ohiturarik.

Bestalde, nahiz festak herritarrei begira antolatu behar direla jakin, hauspo eder-ralitzateke gaueko garraio publikoa ipintzea, baita Anibarko portuko biztanleak etxera lasai joateko farolak piztea ere, horrela gaztetxea irekitzeko aukera ere edukiz.

Beraz, mezuez hausnartu behar dugu eta plazako giroa indartu, horretarako burutaziorik izanez gero lasai joan antolatzaileen bileretara, eskertua izango da.

**Egoitz Dorronsoro**

# Gerra eta bakea eta beste sorpresak

## Kritika

### Gerra eta bakea kantak


**Danborjoleak taldea:** Susana Cerro Balmaseda -ahotsa-, Mario Clavell Larrinaga -flauta-, Nerea Pérez Beltrán -akordeola-, Ainhoa Gutiérrez Ortega -perkusihoa- eta Endika Moreno López -baxua, moldaketak eta zuzendaritza-.

**Ekoizlea:** Juan Rekarte -AusArt Records-.

**B**adira ezusteak *Gerra eta Bakea kantak* diskoan. Hasteko, Danborjoleak du izena taldeak, baina atabal oso golpe gutxi entzuten dira: txirula, kontrabaxua, eskusoinua eta perkusioko tresnak dira ahotseilaguntzeko erabiltzen dituztenak. Kontrabaxuaren eta bereziki eskusoinuaren lana gustatu zaigu, bertsioen erritmoa eta izate berria gauzatzerakoan, nortasuna ematen diote lanari-eta.

Ustekabea da ere, esaterako, Benitoren kanta ezagunak modu klasikoan kantatzen duen Susana Cerrori indartsu eta bete aditzea, zenbat eta pianoago orduan eta ederrago bihurtzen den ahotsean.

Harritu egin gaitu, bestalde, piezen aukeraketan halako aniztasun bitxia aurkitzea: Sorozabalen *Gernikaren* soi-nuak *Bizkaia maite* eta *Nere herriko neskatxa* maiteren doinuaren ondoan; edo *Iya gu-riak egin du*, edozeinen barrua mugitzen duten karlistada garaiko Xenpelarren bertsoak, *Danny Boy* irlandar kantatu hunkigarriaren euska-



Danborjoleak taldearen bigarren diskoa da hau. AUSART RECORDS

razko bertsioarekin ikustea...

Bukatzeko, izenburuak ere badu sorpresarako zirrikitua. *Gerra eta Bakea* aipatzen dira portadan eta hor daude *Ez naiz ni gerraren zale, baizik pakearen alde...* Xenpelarren beraren hitzak ere, baina badu diskoak beste osagai bat, betiko eta unibertsala dena, saihestezina andre-gizonen bizitzan: maitasuna; eta ho-

rrelakoak kanta asko, amodiozko kantak.

Billboko San Frantzisko Xabierrekoaren parrokian egin-dako grabaketa txukun eta garbia da entzuten dena, eta oso modu gustagarrian dago argitaratua. Gure iritziz, kanten hitzak ere jartzea merezi zuen.

[ ANA G. DETXABARRI ]

**Ikasleak idazle**  
Mikel Lizarralde

## Telebistako programazioa

**G**auregun, hainbat eta hainbat telebista kanal izan arren; be-  
raiek, kirol munduari, edo hobeto esanda, futbolari, ordu gehien eskaintzen dizkiote.

Ni gustura nago telebista-ko programazioarekin, izan ere kirola asko gustazen zait. Telebista piztu eta kanalen batean beti dago kirola. Nik



uste dut, ondo egi-  
ten dutela futbo-  
la asko bota-  
tzen; zeren eta munduan kirol nagusia futbola da. Lehen, partida

asko ematen zituzten telebis-  
tan, baina orain *Canal Plus*,  
*Gol televisión*... daudelako  
edo, askoz ere partida gutxia-  
go ematen dituzte. Nik EITB  
asko ikusten dut, baina orain  
pilota partidak, futbol parti-  
dak eta abar errepikatuta bo-  
tatzen dituzte. Ulertzekoa da  
zaila izan daitekeela, baina  
eskatuko nuke errepikatuta-  
koak bota beharrean, saio be-  
rriak egitea/sortzea. Ea ho-  
rrela partida gehiago eskain-  
tzen dituzten.

Nahiz eta, saio asko errepi-  
kapenak izan, nik, behintzat,  
EITB ikusten jarraituko dut.  
Bertan kirola euskaraz es-  
kaintzen baita.

**Gabon**  
TABERNA  
plater koadrako pintxoak  
Tfnos: 943 83 06 09

**Zaragueta**  
Herri Eskola Orrio  
telefonoa: 943 89 40 52  
e-mail: 012137aa@hezkuntza.net

**ORIOKO HERRI IKASTOLAK**  
ondorengo soslaiak duen langilea behar du:  
• **Haur Hezkuntza diplomatua**  
EGA izatea beharrezkoa da  
Ingelesko titulazioa baloratu da  
Hautagaiek [www.oriokoikastola.net](http://www.oriokoikastola.net) web orrian  
dagoen inprimakia bete beharko dute.  
Epea: abenduaren 13tik 31ra -biak barne-  
943 834 704 [orio@ikastola.net](mailto:orio@ikastola.net) [www.oriokoikastola.net](http://www.oriokoikastola.net)



## » HANDIK ETA HEMENDIK



Harrijasotzetik gutxien gustatzen zait jendeak kaletik geratzen zaituenean eta esaten dizunean: *Laga ezazu; zu bezalako neska bat harrijasotzen, erotuta al zaude?* Minik ez didate egiten horrelakoek eta garrantzia

askorik ere ez diet ematen. Baina zerbait baztertzekotan, hori baztertuko nuke. Kritikatzen jarduten den jende hori.”

**Idoia Etxeberria**, Harrijasotzailea,  
bestesentsaziobat.wordpress.com, 2013ko abenduaren 11.

## » OSPAKIZUNA



## Atsolorra: jaioberrien ongietorria

Urte berean jaiotzen diren haur guztiei ongietorria egiteko ekimena jarri du martxan aurtengo sanikolasetan Orioko Festa Batzordeak: Atsolorra. 2013an jaiok izan dira estreinako protagonistak. 45 inguru haur jaio dira aurten eta horietatik 30 izan ziren udaletxeko ospakizunean. Festetako zapi bana jarri zioten lepoan ume bakoitzari Udal ordezkariak eta gero argazkia atera zuten guztiek senideekin.

## » ZORIONAK!

## Aiako azokari

**A**iako plazan azoka jar-tzen hasi dira asteartean goizetan – Gabonetan astelehenetan izango da –. Azokako dendariak herri txikietan azoka bultzatzeko proposatu zuten egitas-moa eta Udalak, hasieran zalantza izan arren, ideia babesteko erabakia hartu du herria merkataritzaren aitzakian astegunez plazari bizia emateko.

Azokako merkatariez gainera, herriko dendariak ere hitz egin dute Udal ordezkariak eta berentzat konpetentzia ordezkariak azoka aproposa dela uste dute. Izan ere, asteartean azokara ez ezik herri-tarrak beren dendetara erosketak egitera joateko aukera gehiago izango delako seguru asko.



**RAMIRO**  
argazkiak

www.fotoramiro.com  
fotoramiro@fotoramiro.com

610 69 76 68  
943 83 10 48

**URDAIRA**  
Sagardotegia

Abenduaren 20an  
barrikote afaria

*Deitu eta etorri!*

Urdaira baserria  
20170 Aginaga-Usurbil  
Tf: 943 372 691  
630 777 346



# Aian ezin zen ez euskaraz eta ez dantzaz

## Oroimenaren kutxa

**A**iaiko eskolari dago-kion 1784ko azaroaren 27ko dokumentu batek hauxe zioen: *Dará orden estrecha de que nunca hablen entre sí vascuence, sino castellano. Y para puntual observancia de esta orden se valdrá de la sortija, tomando cada sábado razón de su paradero, apercibiendoy castigando directamente al que se hallare con él.* –Sobre la enseñanza primaria en el País Vasco, Fr. Jose Ignacio Lasa–.

Mende eta erdi geroago, 1941ean, Aiako festak ziren; agintariek, Don Hilario apai-zarekin elkar hartuta, helduan dantzaz egitea galarazi zuten. Aginduari kasurik egin gabe, zazpi bikotek elkarri helduta egin zuten dantzaz, Jexux Zulaika *Beobatek* soinu-jotzen zuela. Baten batek salaketa jarrita, bosna duroko multa ezarri zieten. Batzuek ordaindu nahi ez eta biharamunean Ondarretako kartzelara eraman zituzten. Dantzarien artean bazen 15 urteko neska bat, Olazabal Txikikoa; gazteegia kartzelan sartzeko, eta haren partez aita eraman zuten –Zarauzko folklorea liburutik, Xabier Alberdi eta Xabier Etxabe–.

Euskaraz egitea galarazita eta dantza helduan jardutea ere bai. Txistulari eta trikitilariak, festa jartzeko ahalegi-netan; eta agintariak, isunak



Orain Aristerrazun egiten dute dantza askean zein lotuan. KARKARA

eta trabak jartzen. Festaren kontrola izugarria zen, eta ez zegoen edozeinekin fidatzerik; gerra bukatu berria zela, elkarren kontrako salaketak ohikoak izaten ziren.

Baina herriak beti topatzen du bidea. Elkano auzoan, Zarautz eta Aiaren arteko muga San Pedro elizaren ondoko frontoiaren erdi-erdian dago; hango jaietan trikitilariak

Aiako partean aritzen ziren helduko piezak jotzen, eta bertaratutako jendea Zarauzko partean dantzaz, ondo helduta, Don Hilarioren debekuen eraginetik kanpo.

Aiarrak orain, debekuak debeku, euskaraz bizi dira egunero, eta dantza helduan segitzen dute igandero.

[ IÑAKI ITURAIN ]

## » JAIOTAKOAK

- Yasmin Bourass Oulad, Orion, abenduaren 12an.
- Leire Juaristi Aristegieta, Orion, abenduaren 9an.
- Adei Lasarte Seguro, Orion, azaroaren 27an.


## » EZKONDUTAKOAK

- Claudia Patricia Jimenez Moncada eta Jose Ignacio Saez Perez, Orion, azaroaren 30ean.
- Zigor Diez Salsamendi eta Marta Rosende Vazquez, Orion, azaroaren 28an.

## » HILDAKOAK

- Margarita Makazaga Solaberrieta, Orion, azaroaren 28an. 86 urte.

Eskela edo urteurreneko gogoangarria Karkaran jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:  
**943 83 15 27**



**Katu Horia**  
BINGO DUTAKO KUTXA

ESTROPALARI, 10  
20510 ORIO  
tel. 943 11 66 99  
LARRIARIZ  
605 67 64 35

**KAXAIO**  
PLADURRA ETA IGELTSUA

Konponketa eta berrikuntza lanak  
pladurra eta igeltsuarekin

4josemaria@gmail.com  
656 777 574

Armenia Goin 1 - 5. lekua - 20.000 litro  
TEL. 943 84 82 13

**kix**  
estetika

Rehabilitazio  
azaleko tratamenduak

ileapaindegia

**GARMENDIA**  
INMOBILIARIA - AHOLKULARITZA - ASEGURUAK

Ibai Ondo, 1  
Tel.: 943 834 486 - Fax: 943 132 941

# “Merkatua itxi digu jabeak, lana bere beste fundizio batera eramanez”

**Miguel Romero**

TS Fundiciones-eko ELAko ordezkari sindikala

TS Fundiciones lantegiak hartzekodunen konkurtsorako eskaera egin du. 150 langile ditu enpresak eta horietatik 21 oriotarrak. Jarduerari eutsi arren hemendik aurrera epaileak hartuko du erabakia. Langileek beren egoeraren berri eman digute.

## IRATIAGIRREAZALDEGI

TSko langilea da orain dela 18 urtetik; ELAko ordezkari da langileen komitean. 2007an 330-340 langile izatetik erdira jaitsi da kopurua. Enpresak jarduerari eutsiko dion arren, hemendik aurrera epaileak hartu beharko ditu erabakiak.

### Zein da TSren jarduera?

Fundizio bat da eta fundizioa eskuz egiten da. Merkatu zabalena energia eolikorako haize-sorgailuena da, eta erreminta makinarako ere egiten dugu lan.

### Nola iritsi zarete hartzekodunen konkurtsora?

Iaz Sorazutarrak gehiengoarekin sartu ziren zuzendaritzan eta kudeatzaile berriek ekarri dute aldaketa. 20.000 inguru tona atera genituen iaz eta lantaldean berregituratze handirik ez zela egongo

esan arren jendea botatzen joan dira. Urte bukaeran greban egon ginen 49 langile bota nahi zituztelako eta azkenean 20 boluntario atera ziren adostutako baldintzekin. Urtea %33ko LEE-ERE-batekin hasi genuen. Orain, hartzekodunen konkurtsoan gaude.

Enpresak, hori saihesteko, bideragarritasun plana aurkeztu zigun: 50 kaleratze, gelditzen direnen soldaten %25eko jaitsiera, lanaldiari 100 ordura gehitzea eta oporrak urtarrilean, otsailean, azaroan edo eta abenduan hartu beharra, eta 80 orduko malgutasuna.

### Zer egin duzue langileok eskaintza horren aurrean?

Ezezkia eman, irteerak borondatez izan behar direlako eta kaleratzeko langileak berek aukeratuko lituzketelako. Gainera, enpresak esan du baldintza guztiak

onartu ezean ez dela bideragarritasun planik egongo. Badago jendea langabezia gutxi edo batere kobratuko ez duena LEEak direla-eta. Familia asko pixkanaka itotzen ari dira eta bi nominen ordainketa atzeratuta dugu.

### Nolakoa da lan egoera zuen arloan?

Merkatua itxi egin digute jabeak gurea-rekiko paraleloa den beste enpresa bat daukalako eta lana hara eramaten ari delako. TSn sorazutarrak nagusitu aurretik, enpresa hori ixtear zegoen eta guri esan digute jaitsiera merkatuaren kontua dela, baina merkatua nahi duten moduan mugitzen dute. TS bideragarria da dituen langileekin. Eolikoen sektorean Europako onenak izan gara, bezero indartsuak ditugu, baina piezak egiten ez badira beste fundizioetara joango dira. Ahalmena ez dugu galdu, baina lehengairik ezean ezin dugu lanik egin. Errezeloa dugu guri egiten ari direna beren beste fundizioetan ere egingo dutela.

## “20.000 inguru tona atera genituen iaz eta lantaldean berregituratze handirik ez zela egongo esan arren jendea botatzen joan dira”

“Ahalmenik ez dugu galdu, baina lehengairik ezean ezin lanik egin. Errezeloa dugu guri egiten ari direna beren beste fundizioetan egingo dutela”

### Konkurtsorearen aurrean sindikatuak lanean ari zarete, ezta?

Hala da. Enpresak jarduerari eutsiko dio baina epaileak erabaki behar du enpresa bideragarria den ala ez, eta zenbat jende eta baliabiderekin. Krisiak eragina izan du, noski, baina ez erabat bezeroek beste leku batzuetara jo dutelako, baizik eta lehengai faltan produktua egin ez eta bezeroek konfiantza galdu dutelako.

Iaz greban egon ginen eta akordio bat sinatu zen lan baldintzak errespetatzeko, eta langileak bi urtez mantenduko zirela adostuz, baina ez da hala izan. Akziodun batzuei azalpenak eskatu arren desagertuta daude eta ez dakigu ezer.

Hitzarmena indarrean da, beraz, protestan jarraituko dugu garbi esanez gure enpresa bideragarria dela. 150 langile kaleratu nahi gaituzte lana geneukala jakinik eta hori oso gozorra da.



KARKARA

# Orio

## Kontzertua

■ Abenduaren 20an, Keizpe-an rock taldearen kontzertua. Dani -ahotsa eta kitarra-, Jone -baxua eta ahotsa- eta Koldo -bateria-. 23:30ean, Kalakari tabernan.

## Trikitilarien eguna

Abenduaren 28an.

■ Trikitilarien elkartzea, 11:30ean, Herriko Plazan.  
 ■ Kalejira, 12:00etan, herriko kaleetan.  
 ■ Bazkaria, 14:00etan.  
 ■ Erromeriak, 17:00etan, herriko lau tabernatan: Zabale eta Lurdes Alkorta -Loretxu-; Estanga anai-arrebak -Arkaitz-; Maixa, Ines eta Maite -Salatxo- eta Azkonabieta eta Imanol -Kolon Txiki-.

## Bingoa

■ Urtarrilaren 8an, 15ean eta 22an, bingo saioa, Jubilatuen Elkartek antolatuta, 16:30etik 18:30era, Kultur Etxean.

## Ikastaroa

■ Urtarrilaren 11n, otsailaren 1ean, martxoaren 8an, apirilaren 5ean, maiatzaren 17an, ekainaren 7an, 12:00etatik 14:00etara. Guraso eskola: teoria, ariketa praktikoak eta gurasoen esperientzien elkartrukea. Irakaslea: Nerea Mendizabal Etxeberria, psikopedagogo, gizarte hezitzailea, haur masajeko hezitzailea eta komunikazioan aditua. 96 euro. Izen ematea: Kutxabank 20955033121062739098 eta bidali izen emate orria urtarrilaren 7a baino lehen [nereamendi@gmail.com](mailto:nereamendi@gmail.com) helbidera.

## Hitzaldia

■ Urtarrilaren 14an, *Osasuna eta kiopraktika* hitzaldia. Hitzalaria: Xabier Mendaraz, fisioterapiari diplomatua eta kiopraktikan lizentziatua. Sarrera doan. Hitzaldirako lekua gordetzeko deitu telefono zenbaki honetara: 943 44 16 87.

## Traste zaharrak

■ Urtarrilaren 15ean eta 29an, traste zaharren bilketa, ohiko zabor ontzien ondoan. Atera aurretik udaletxera deitu behar da zer bota behar duzuen jakinarazteko. Tf.: 943 830 346.

## Irteerak

■ Urtarrilaren 19an, Biriatu-Biriatu -Lapurdi- mendi irteera, Talai Mendi elkarteak antolatuta. Izena emateko epea: urtarrilaren 17a, Uranga burdindegian. 12 euro.

## Kultur Etxea eta liburutegia

■ Gabon festak direla eta Kultur Etxea eta liburutegia goizez bakarrik -09:00etatik 13:00etara- egongo dira irekita astelehenetik ostiralera, abenduaren 23tik urtarrilaren 7a bitartean. Abenduaren 24an, 25ean eta 31n eta urtarrilaren 1ean eta 6an itxita.

# Aia

## Erromeriak

■ Abenduaren 22an, Izer eta Alabier eta urtarrilaren 5ean Kupela, 18:30etik 21:30era, Andatzako Aristerrazuko plazan.

## Podologoa

■ Abenduaren 28an, podologoaren kontsulta, sendagilearen etxean. Aurrez ordua hartzeko: 943 131 144.



Karkara aldizkariak



Eta Arkupe elkarteak



Karkarako laguntzaileentzat



saria dute



30 €



Arkupeko dendetan gastatzeko

*Abenduko sarituak:*

**Nati Etxezarreta**  
(*Il Gelato-n*)

**Juan Ignacio Manterola**  
(*Kutixi-n*)

**Karkara lagundu nahi dut:** Karkara aldizkariaren laguntzaile izan nahi dut eta prest nago Karkarari urteko 36 euroko laguntza emateko.

Izen deiturak: .....

Helbidea: .....

Herria: ..... Posta kodea: ..... Tel.: .....

Kontu korronteko zenbakia:



# Gosea duenak edozein ordutan izango du zabalik Ashé jatetxeko atea

## Ashé jatetxea

Santio-Erreka auzoan

# ASHÉ!

Goitik behera aldatu da Ashé jatetxea. Azken zortzi urteetan bizi izan duen egoerari buelta emateko gogoz etorri dira Zarauzko Pagoeta tabernatik jabe berriak. Gauza berriak egiteko gogoz datoz: esaterako, igande eguerdian pintxoa doan ematen dute

Afrikarrak Amerikara joan zirenean, haien sinismenak eta hizkuntza berekin eraman zituzten. Ashé joruba hizkuntzatik datorren hitza da eta zorte ona da bere esanahia. Afrikarrek beren errezoetan erabili izan duten hitza da.

Jatetxe honetako janaria denetarikoa da eta den-dena etxean egindakoa. Toki desberdinetako gastronomia eta poltsiko guztietara egokitzen dena. Hala, Latinoamerikako jakiak dastatzeko aukera izateaz gainera, betiko euskal sukaldeko platerak ere beren aukeren barruan dauka. Baina proposamen berriak ere esku zabalik hartuko dituzte Ashén. Gaur egun kartan dituzte, besteak beste, txerrikumea labean eta arroza grisarekin kubatarren erara, txuletak argentinar erara eta zapoa parrillan. Bakoitzaren neurrira egindako menuak ere eskaintzen dituzte, aurrekontuaren edo jan nahi denaren arabera egindakoa.

Baina, horrez gainera, eguneko menua, pintxoak, ogitartekoak, plater konbinatuak... zerbitzatzen dituzte, Zarautzen pasa dituzten hainbat urtetan bezala. Sukaldeko zerbitzua, jatetxea irekita den orduetan zabalik mantentzen dute. Hala, atetik sartu eta jan nahi duenak ez du erlojuari begira ibili beharrik gabe.

### Etxeko goxotasuna auzoan

Familia giroak ere egokitu dute jatetxea. Berek ere familian egiten dute lana eta gertuko tratua eman nahi dute. Hala, haurren txokoa jarri dute eta udan igerilekua muntatzen dute guztien gozamenarako. Horrez gainera, zuzeneko musika, bakarriketak, motorzaleen kontzentrazioak eta bestelako ekintzak egin nahi dituzte auzotarren bizipozerako.

Abenduaren 31n, kotiloia egingo dute bertan. Sarrerak Ashén edo beren Facebookeko orrialdean eskuratu daitezke. Zuzeneko musika eta dj-a izango dira Ashén urtea alai bukatzeko.



# ASHÉ!

Zatoz Santiora urte bukaera gurekin ospatzera!







### **JOXEMARI OLASAGASTI**

'Kalean, oraindik ere, asko daukagu irabazteko euskararen erabilerari dagokionez'



### **AMAIA URKOLA**

'Jendeak, orokorrean, darabilen hizkuntzaren kontzientzia gutxi dauka. Hori landu behar dugula iruditzen zait'



### **ROSI LAZKANO**

'Askotan, konturatu ere egin gabe, oso erraz egiten dugu erdaraz, nahiz eta inguru guztia euskalduna izan!'



### **EGOITZ EIZAGIRRE**

'Taberna batean kartela gaztelaniaz bakarrik ikusten dugunean, urruntzen gaitu horrek ala berdin zaigu?'



### **GORETTI ARANBURU**

'Oriotarrek, orokorrean, asko estimatzen dute medikuarekin euskaraz normal egin ahal izatea'



**Euskaraz  
bizi-bizi**

ORiotarrok  
EUSKARAZ BIZI  
NAHI DUGU. BIZI